

LIBURU BARRIAK

KOLONBIAR OLERKI-TXORTA EUZKERAZ (Parnaso Colombiano en euzkera). EKIN, Buenos Aires, 1968. 20 x 14 eiña, ta 258 orrialde. Azken urteotako kolonbiar olerkaririk onenen 47 olerki-lan euskeraz jarrita. Itzultzaileak: J. Onaindia, Lin Akesolo, Jon Beistegi, Iñaki Goikoetxea, Sabin Muniategi, A. Onaindia'ren ardurapean. Marrazkiak: Bilbao'ko ertilari Luzuriaga'k. Bogota'ko Euzko Etxea'k babespean artu ta Abrisketa'tar Pantzeska'k izan dau argitalpenaren ardura berezia.

Beste batzuen artean Kolonbia'ko olerkari onein lanak agertzen dira: Julio Florez, Kornelio Hispano, L. Karlos Lopez Eskauriaza, Rafael Pombo, Jose Asunción Silva, Ismael Enrike Arziniagas eta egunokaz, izparringiak eta irratiak diñoenez, Mexiko'ko Olinpiar Jokuetan lenengo Olerki-saria irabazi dauan Oktabio Amortegi. Kolonbia'ko euskotarrak Kolonbia'ri egiñiko biotz-opari samurra dozu. «Laterri ontan bizi dan euzko gizatalde txikiak —diño sarrerako omenaldian— ezin eikieon aurkeztu abegi onez artu ebazan lur txeratsuari, aspaldiko euskal izkera zarrera, euzkerara itzultitako kolonbiar olerkarien bertsoak baiño erakuspen bizi garbiagorik».